

aikar!




txorierriko aldizkaria

**Angel Garitano, Ondarru
Athleticeko bigarren
entrenatzailea**

**Txorierritarra
eta zuri-gorria**

bizitzaz bete



hutsik duzun etxea

Euskadin, 75.000 pertsonak baino gehiagok¹ etxebizitzaz duna izateko duten eskubidea aldarrikatzen dute. Bestalde, 26.000 pisa daude hutsik.

Pisa horietakoren bat zarea bada eta Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bidez alokatzeko eskaintzen baduzu, oporbidetza erabilera eta errenta gaiti, orain hutsik adierazten ari ariko ginen diruak:

- Zere pisa alokatzeko hudeaketa gutxiak gaiti egingo dira.
- Best urte alokatuta izango duzula eta errenta zintzo-zintzo kobratuko duzula bermatzen dira.
- Gaiti arduratuko gara pisa mantendu eta zaintzeaz.
- Eta obarekin bat egin behar baduzu, finantzatu egingo dira.

DENA GURE KONTU ZUK ZERTAZ
KEZKATU IZAN EZ DEZAZUN

900 251 251 INFORMA ZAITEZ

Kaleak konpontzeko lanak, Zamudion



Talleri, Arbolantxa eta Mendiko kaleen konpontze lanak joan den hilaren amaieran hasi zituzten Zamudion. Egitasmoa Udalak egindako Irigarritasun-Planaren barruan dago, eta hirigunean irigarritasun-neurriak ezartzea du helburu. Horrela, kale horietako espaloiak zabaltze egingo dituzte eta argiak ere berriak jarriko dira. "Herriko punturik kritikoa da, izan ere, espaloiak oso estuak dira, eta gaur egun ezaugarri zehatz batzuk eduki behar dituzte, herritarrak bertatik erosi ibili ahal izateko", azaldu du Sorkunde Aiarza alkateak. Gainera, etorkizunean kaleok oinezkoentzat egiteko asmoa du Udalak. "Ezin dugu orain egin, momentu honetan ez

dagoelako trafikoa pasatzeko ordezko biderik. Hori konpontzen denean, oinezkoentzat egingo ditugu".

Espaloiak zabaltzearen ondorioz, 20-30 bat aparkaleku kenduko dira; hala ere, Udalak aparkaleku berriak egingo ditu Koltza kalearen aurrean.

Konpontze lanak hiru hilabeteren buruan amaituta egotea espero dute. "Herritarron bizi-kalitatea hobetuko da, baina eragozpenak jasan beharko ditugu lanak amaitu arte. Eta Udaletik eragozpen horiek barkatzeko eskatzen diegu zamudioztarrei"esan du alkareak. Konpontze eta apaintze lanetan 480.000 euro inbertituko dituzte.

Upeltegi batera irteera, Loiun

Larrakoetxeko jai-batzordeak Lantziegoko upeltegi batera irteera antolatu du maiatzaren 5erako. Egun horretarako hurrengo egitaraua prestatu dute:

-09:30: Irteera Herriko Enparantzatik

-11:00: Geldialdia Biasterin

-14:00: Bazkaria Lantziegoko upeltegian (De Luis R.s.c.)

-Menua:

Piperrak itsaskiz beteta

Sotoko urdaiazpikoa

Zainzuriak

Patatak Errioxako erara

Arkume-txuletak aihen-erara

Etxeko postrea

Ardo ondua, kafea eta kopa

-18:15: Geldialdia Bastidan

-22:00: Loiura heldu

Irteerak 45 euro balio du pertsona bakoitzeko, eta izen-ematea apirilaren 16tik 25era bitartean egin behar da udaletxean, 11:00etatik 13:30era (Etor).

Zamudioko Kamara Koralak badu bere webgunea

Hemendik aurrera Zamudioko Kamara Koralaren berri sarearen bidez ere izango dugu, izan ere, duela gutxi www.zamudiokokamarakorala.eu webgunea jarri dute abian. Webgune honekin jendeari erakutsi nahi diote zein den koralak osatzen duten 12 nesken lana eta abesbatza mundua. Gainera, koralaren historia eta hurrengo hilabeteetan emango dituzten kontzertuen datak jarri dituzte, besteak beste.





Jantxarte
Jantxarte

Teknologi Patea - Olatzunta, 300
40110 ZAMUDIO - (GUZKAA)
Telefonoa: 94 403 09 00
Faxa: 94 403 09 01
e-mail: info@jantxarte.com
e-mail: reservas@jantxarte.com
www.jantxarte.com



VICTOR

Una gran tradición,
especialidad en
carne, pescado, cordero,
y más.

Plaza de los Carros
Teléfono: 94 403 09 00
www.victor.com



Yoda Floristas

Gran tradición,
especialidad en
carne, pescado, cordero,
y más.

Teléfono: 94 403 09 00
www.yoda.com

Comunicación, Reflexión,
IRIGO RARCPNA
Igualdad y justicia



Actividad cultural y social
2010-2011
Teléfono: 94 403 09 00
www.irigo.com



luz zamudio
Música, Arte y Cultura

Gran tradición,
especialidad en
carne, pescado, cordero,
y más.

Teléfono: 94 403 09 00
www.luz.com

Oinezkoentzat egin barik dagoen urigune historikoko zatiaren lanak hasiko dira Larrabetzun



Larrabetzuko urigune historikoa oinezkoentzat egin zuten aspaldian; hala ere, oraindik zati bat dago atondu barik. Hori Lezamatik Morgarantz doan errepide-zatia da; plazaren aurretik pasatzen dena hain zuzen ere. Tramu horren atontze-lanak apirilaren 2an hasiko dira, eta errepide-a zirkulaziorako itxiko dute batzoki zaharraren eta Anguleri Jauregiaren parean martxoaren 28an. Handik aurrera autoek Anguleri eta Gaztelumendi kaleetatik pasatu beharko dute Morgarantz.

Beharrak fase bitan egingo dituzte. Lehenengo fasean lurpeko azpiegiturak jarriko dituzte –saneamendua, ura, argia, gasa... - eta hormigoia botako dute, eta bigarrenean granitozko galtzadarriak eta lauzatxoak, bankuak, farolak eta paperontziak ipiniko dituzte, besteak beste. Horrezaz gainera, eskailerak egingo dituzte Anguleri jauregitik plazara igotzeko eta

ezinduentzako bide berezia ere atonduko dute.

Lanak zortzi hilabeteren buruan amaituta egotea espero du Udalak eta, orotara, 335.286,46 euro inbertituko dira. Lehenengo fasean 140.852,99 euroko inbertsioa egingo da eta diru kopuru hori Cespa-Conten enpresak ordainduko du bere osotasunean. Beste alde batetik, bigarren fasean 194.433,47 euroko inbertsioa egingo dute; Foru Aldundiko Ingurumen Sailak 126.000 euro jarriko du, eta gainontzekoa Udalak.

Egitasmo horri esker Larrabetzuko urigune historikoko %100a oinezkoentzat egingo da. Tomas Ordeñana alkateak aipatu duen bezala, horrek onura handia ekarriko die uriari zein larrabetzuarrei, “trafikoa erdigunetik aterako da, eta uritarrek zein bisitariek gure ondareaz lasai gozatu ahalko dugu”.



Saker enpresa, Larrabetzuko kiroldegia kudeatzailea

Larrabetzuko kiroldegia uriko Saker enpresak kudeatuko du. Enpresak frontoiaren ardura izan du orain arte, baina apiriletik aurrera kiroldegian ematen diren zerbitzu guztiak kudeatuko ditu: igerilekua, gimnasioa, ikastaroak eta frontoia. Horrezaz gainera, Pilota Eskola ere hartuko du ardurapean.

Iaz auto-istripuz hil ziren hiru gazteei omenaldia egin diete Larrabetzun

Duela urtebete Iñaki Gallastegi, Gorka Fernandez eta Alain Romero gazteak auto-istripuz hil ziren Larrabetzun. Lagunek omenaldi hunkigarria egin zieten otsailaren 25ean herriko frontoian. Bertara jendetza handia batu zen; ikaskideak eta Txorierriko beste herrietako lagunak, haien artean.

Antolatzaileek azaldu diguten moduan, egun horretan egin zituzten ekitaldi guztiak zenbaki bat zuten komunean: 3a, “haiek hiru direlako”. Horrela, Las Furiak taldeak (3 taldekide) abesti batzuk eskaini zituzten eta horren ostean, hiru kiroletan (eskupilotan, futboleko eta sokatiran) aritu ziren. Musika Eskolako hiru xirularik *Xalbadorren heriotza* abestia jo, eta Bertso Eskolako hiru lagunek bertsoak bota zituzten. Omenaldia amaitzeko, *Agurra* dantzatu zieten eta lore sorta bat utzi zuten frontoian hiru gazteen oroimenez jarritako plakan.

Plazaingoa
MP Antonio Liria
Tel: 945 22 22 22

Vertigo
CONTRUCCIONES, REPARACIONES, MAQUINARIA
DIRECCION: ANTONIO LIRIA
Poligono Tecnológico 7-6-5
48940 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel: 94 452 22 22 - Fax: 94 452 22 34

OSKARBI
fotografos
TEL: 945 22 22 22

MARMOLERIA TXORIERRI
MARMOLDEGIA
Sakalde eta bainageletako harriak
fotokopio, artabariak eta hilerriak
Tel: 945 22 22 22

GORDELA NETZERIA
Tel: 945 22 22 22

Bocateria
3 otarteko
Pizzerria
Tel: 945 22 22 22

Haur-eskolak 207.288 euroko lizitazio-aurrekontua izan du, eta hori Udalak ordaindu du. Haurreskolak Partzuer-goak altzariak eta hezitzaileak jarriko ditu, eta kudeatu ere egingo du haur-eskola.



Folk-loreak Loiu
I. Folklore Astebu-
rua.— Martxoaren
23tik 25era bitarte-
an *Folk-loreak*
Loiu I. Euskal
Folklore Asteburua
izan da. Ekitaldia
Loiuo Dantza
Taldeak antolatu du
Udalaren laguntza-
rekin. Asteburuan
zehar hainbat ekin-
tza egin dituzte;
hitzaldia, dantzen
agerraldia, kalejira
eta erromeria izan
dira euren artean.



Nah! duzun lekura iristeko arazak dituzu?



References

Analizel agur...



902 54 06 54

100



Elkartasunaren eta Giza Balioen I. Azoka izan da Derion

Derioko Udalak Elkartasunaren eta Giza Balioen I. Azoka antolatu zuen martxoaren 25ean. Azoka goiz osoan zehar izan zen herriko pilotalekuan, eta bertan 20 elkarte eta Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) parte hartu zuten.

Azokak hurrengo helburuak zituen: herritarrek gizarte-arazoetara hurbiltzea eta balore solidarioak zabaltzea. Horrela, frontoia gune solidarioa bihurtu zen, "ea balore horiek derioztarrei ez ezik Txorie-rriko beste herritako biztanleei ere hurbiltzea lortzen dugun", esan zuen Ander Aiarza Derioko alkateak. Horrezaz gainera, GKE-en lana azpimarratu, eta elkarte horiei euren beharra aurrera ateratzen laguntzea

ezinbestekotzat jo zuen, "bazkide egiten, bertan lan egiten edota diruz laguntzen. Izan ere, euro batekin ume batentzako txertoa eros daiteke Hirugarren Munduan".

Egun solidarioa izateaz gainera, festa-eguna ere izan zen, eta elkarteek hainbat ekitaldi egin zituzten, euren lana publikoari erakusteko. Adibidez, jaima bat hurbile-rik ezagutzeko aukera egon zen. Elkartasunaren eta Giza Balioen Azoka urtero antolatzeko asmoa du Udalak. "Guztiok ahale-gin txikia egitea beharrezkoa da, mundua gero eta hobea, eta solidarioagoa, izateko".

Testua eta argazkia: Bestorrene

Elkarte batzuk

• Down Sindromearen Fundazioa

"Fundazioak egiten duen lanaz gain, jendeak eurak ezagutzea nahi dugu. Gu bezalakoak dira, euren beharrekin, muga batzuekin, baina ahalmen askorekin. Inplikazioa eskatzen diegu instituzioei".

• Sahararen ordezkaritza Euskal Herrian

"Sahararen kausarekin kolaborazioa eskatzen dugu, laguntza 32 urte Argeliako desertuan erbesteratuta dauden eta sufritzen ari direnentzat. Maroko eta Espainiako gobernuaren erruz horrela gaude, egingo ez den erreferendum bat itxaroten. Laguntza eta justizia eskatzen ditugu, besterik ez".

• Esklerosi Anizkoitzaren Eugenia Epalza fundazioa

"Zeregin nagusia arazo hau dutenei bizitza kalitatea hobetzea da. Deustuko zentroan zerbitzu pilo bat dugu: fisioterapia, terapia, psikologia, yoga. Jendea gaizotasunekin sentsibilizatzeko eskatzen diogu eta instituzioei laguntza gehiago, Euskadin 3.000 afektatu inguru baitaude, Bizkaian 700tik gorra".

• Bikarte

"Duela 10 urte Gallartan hasi zen elkarte gara. Honi esker Errusiako 800 ume etorri dira jadanik Euskal Herrira, azken urteotan 108 umetxo. Udan hilabete eta erdi, eta neguan hilabete ematen dute gure artean. Kontutan hartu behar da arazo asko ekartzen dutela, begi-arazoak askok, nuklearren inguruan bizitzeagatik beste batzuek...".

ESTILISTA
EVA ARDINES
de *Amell*
Estilista de moda, pelu, maquillaje
Lecorreta, 100m. 48001 Derio
Tel: 945 44 11 11 - 945 44 11 12

HORTZ KLINIKAK
Klinika Zaldia
Ondarribia, 10. 48001 Derio
Tel: 945 44 11 11 - 945 44 11 12

GUTRIAN
WETTEREN-DEPORTIVA, S.L.
Wetteren-Deportiva, S.L.
Wetteren-Deportiva, S.L.

ADARRE KANTERA
Formigak
pala, lantza, zuloz
CIBOLA
Tel: 945 44 11 11 - 945 44 11 12

URIBE KOLORE
URIBE KOLORE
URIBE KOLORE
URIBE KOLORE

Osteopatia zentroa
J. M. M. M.
Osteopatia zentroa
Osteopatia zentroa

Kalitatea, espazioa, lasaitasuna...
Aurki ezazu behar duzun guztia



Zure etxeko gaitasun inguru nahi duzu Sukia. Honegatik, Landilariak Eltxeritza-igutza etxeki duzu, Bihotz Handikoa behar duzu. Baina zure etxeko zure den lekua, eltxeritza pertsonalitatea eta kalitatezkoak dituen. Giza ezazu kirol eta gizarte ekipamendu horietan eta berdeguneetan Bihotik, aireportutik eta Teknologia Elkarteagatik gertu dagoen inguruan. Zazoz Sukia, zure etxeko zaudu.

 **sukia**
Zure etxeko zaudu.

www.sukia.com

Andres Urrutia, euskaltzainburua

“Euskaldunak jakin behar du alboan daukana ere euskaraz dagoela”

AIKOR! aldizkariaren 5. urteurreneko jaialdian izan zen berba batzuk esaten eta Juan Luis euskaltzainari eta Jose Luis irakasleari **AIKOR!** sariak ematen: ohorea guretzat. Mila konpromiso dituela jakinda, doakiola gure esker ona elkarriketa honen bitartez.



Urrutia saria ematen Juan Luis Goikoetxeari **AIKOR!** aldizkariaren jaialdian

Zein izan zen zure lehengo inpresioa ekitaldira etortzerakoan? Giroa, antolaketa, publikoa... Zer esan zizun zure “adimen emozionalak”?

Harrituta! Eta esango dizut zergatik: ni hiru urte eta pikurekin etorri nintzen Bilbora, eskola erdaldunera, eta gazte-gaztetatik ezagutu izan dut zona hau: Loiu, Zamudio, Sondika... Txorierri aldea. Gure familiako bat ere abade egon zen Sondikan. Orduko giroan, euskara ia klandestina zen, ilunpean zegoen, ezkutatuta. Orduan, bada, lehengo egunean hara joan nintzenean eta, kultur etxea lehenengo, ekitaldia gero eta, batez be, jendea nola dagoen euskararen alde konprometituta ikustean, harrigarria iruditu zitzaidan... Banekien zerbait; horko inguruko lekutasuna eta Juan Luis bera ere aspalditik

ezagutzen baintuen, baina han ikusi nuen jende gaztea, ez soilik “hementxe gaudelako, gure euskaragatik, gure herriaren alde...” esaten, lan egiteko gogoarekin, proiektuekin, proiektu modernoekin etab. ikustean..., harrituta geratu nintzen! Jakin arren, batzuetan “klitxeekin” funtzionatzaren dugu eta uste dugu Ondarroan bakarrik egiten dela euskaraz, eta ez: Bilbo ondo-ondoan ere, 10 km-ra, euskaraz egiten da, euskaldun peto-petoak bizi dira. Beraz, euskaldun mordoa eta euskaldun aktiboak ikusi nituen han.

Zure berbalditxoaren amaieran esan zenuen “ni be Aikor!!lagun naz”. Zergatik?

Arrazoi sinple bategatik, eta demagogia barik: batez ere aipatu dudan harridura horren ondorioz. Jendea mugitu egiten dela eta bere entusiasmoa ikusiz, uste dut merezi duela laguntzea. Hauxe esan nuela uste dut: “oraindik izan ez banaiz ere, hemendik aurrera banaiz eta izango naiz Aikor!!-lagun”, eta hori paperean gauzatu nahiko nuke —notariook beti paperez egiten dugu dena—, eta hemendik aurrera **AIKOR!** notaritzan jaso nahiko nuke. Nik uste dut horrelako gauzak bultzatu egin behar direla, beti izan naiz horren aldekoa. Ahal izan dudaneurrian, batez ere herri txikietan notario egon naizenean, beti kolaboratu izan dut, artikulutxo batekin, informazioarekin, batetik edo bestetik..., eremu mugatu eta hurbileko gauzak ere bultzatu egin behar direlako.

Euskararen mundu honetan, zein da AIKOR! moduko herri aldizkariaren ekarpena eta zer da hobetu behar dena?

Ekarpena hurbil-hurbilekoak izatea da. Jendeak jakin egin behar du aldizkari horretan agertzen dena ez dela nazioarte mailako notizia, bere herriko edo inguruko notizia baizik: albisteak, iragarkiak, kon-

Larrundola Ikastetxea
ESPERANZA ALFAMA
Larrundola Ikastetxea



Zentroa ikusteko:
apirilaren 25-26, 16:00tik 19:00ra
maiatzaren 10-11, 16:00tik 19:00ra

Erakundeak: erdi mailakoa eta goi mailakoa
Erdi mailakoa
-Filosofia eta literatura (1.000 ordu)
-Informazioa (1.000 ordu)
-Medioak (1.000 ordu)
Goi mailakoa
-Informazioa eta literatura (1.000 ordu)
-Ondare informazioa (1.000 ordu)
-Informazioa (1.000 ordu)
LADE (Larrundola Ikastetxearen Distantzia)
-Ereko ikasleak ikasleak (1.000 ordu)
-Informazioa
-Medioak (1.000 ordu)
-Informazioa (1.000 ordu)
ENKIDe (Larrundola)
Larrundola Ikastetxearen Distantzia
-Ereko ikasleak ikasleak (1.000 ordu)
Erakundeak

Larrundola 2 eta 4, 1000 (832K414) e-mail: alfama@larrundola.es - Informazioa: 94 471 01 51

tuak, iritziak eta abar. Euskaldunak jakin behar du alboan daukana ere euskaraz dagoela; gazteek beharbada ez horrenbeste, informazio asko dutelako eskura, baina euskaldun helduak edo adinekoak ikusi egin behar du ondokoa ere modu atseginean euskaraz idatz, irakur eta ezagut daitekeela, hau da, eskola edo lurralde zabaletik aparte, bere ingurukoa ere euskaraz eta harro-harro mundura zabal dezakeela, gu ere bagarela gauza hori geureganatzeko eta geure produktu hori esportatzeko.

Hari horretatik, zer nolako euskara "mota" edo "erregistro" erabili behar da herri aldizkari hauetan?

Argi!, eta honetan euskaltzainburiaren paperean jarriko naiz, argi esango dut erabili behar den ereduak jendearentzat hurbilena izan behar duela, beretzat hartzeko modukoa izan behar duela. Baina gauza bat, «beretzat hartzeko modukoa» ez da edozein grafia erabiltzea, formalizazio puntu bat egon behar da eta hori aspalditik esanda dago.

Zertan datza "formalizazio" puntu hori?

Formak erabiltzen direnean ahoskera forma huts-hutsak erabiliz, jendea desanimatu eta galdu egiten da. Denok onartu behar dugun gauza da hori; ez da euskaraz bakarrik gertatzen; gaztelaraz, frantsesez, ingeleraz... ere bai. Baina gehiago, formalizazio puntu horrek maila asko ditu eta modu askotara egin daiteke. **AIKOR!** moduko aldizkari batean, hasteko, gogoeta sakon bat egin daiteke, modu honetara edo bestera egin erabakitzeko. Formalizazioaren aldeko izan naiz beti, baina ez zentzu txarrean ulertuta: irakurleak eta idazleak jakin behar du hor dituela hurbileko gauzak jasotzeko era bat eta erabili den formalizazio horrek bidea ematen diola beste gauza batzuk eskuratzeko ere. Badakit ezin zaiola jendeari eskatu bakoitza lin-

"Herri aldizkariak erabili behar duten ereduak jendearentzat hurbilena izan behar du"

guista bat izatea, hori ez da inon gertatzen eta. Hizkuntza hori baino modu naturalagoan erabili behar da, baina "naturallegi" ere ez. **Naturallegi?**

Hau da, tabernan berbetan gaudenean, gauza bat da eta, zerbait idatzi behar denean, beste bat. Iragarki bat, ipuin bat, hurbileko kronika bat, albiste bat idazteak, edozein hizkuntzatan, formalizazio puntua eskatzen du. Kasu honetan, formala izatea ez da parrandaren gainean ez idaztea. Hemen kritika bat egin gura nuke: batzuek euren nortasuna markatu nahi dute zenbat eta ahoskeratik hurbilagoko ereduak erabiliz. Baina horrela egiten badugu, bakoitzak bere alde-tik, ez dago zereginik.

Ez da kasua Zamudiora euskara irakasten joatea Axularren ereduak erabilia; Axularrengana bidea eginda heldu behar da. Komunikabide hauek duten arazo handi bat horixe da hain zuzen ere, "erregistro" egokia erabiltzen jakitea. Nik gogoeta sendo bat egitea eskatuko nuke hor, badituzue gogoia, gaitasuna eta erreferenteak. Zorionak egiten duzuen lanagatik eta eskerrik asko gonbidatzeagatik.

"Hizkuntza modu naturalagoan erabili behar da, baina ez naturallegi"

Testua:
Pospolin
Argazkiak:
Pospolin / Aikor!



PROPOSIZIOEN ARTE ITXARONGO DUN INDEPENDENTE IZATEKO?

TEKHNIKERI

LOREN BILBAURRIK LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI
Loren Bilbaurrik LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI
Loren Bilbaurrik LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI

1980-1981 | 1982-1983 | 1984-1985

35 urte bete arte itxarongo dun independente izateko?

ATX BILBAURRIK LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI

1980-1981 | 1982-1983 | 1984-1985

PROPOSIZIOEN ARTE ITXARONGO DUN INDEPENDENTE IZATEKO?

TEKHNIKERI

LOREN BILBAURRIK LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI
Loren Bilbaurrik LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI
Loren Bilbaurrik LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI

1980-1981 | 1982-1983 | 1984-1985


PROPOSIZIOEN ARTE ITXARONGO DUN INDEPENDENTE IZATEKO?

TEKHNIKERI

LOREN BILBAURRIK LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI
Loren Bilbaurrik LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI
Loren Bilbaurrik LAGUNTZA ETXERAKO TEKNIKERI

1980-1981 | 1982-1983 | 1984-1985

DATUEN ARTE ITXARONGO DUN INDEPENDENTE IZATEKO?



Oñati eta Hegoamerika besarkada batean

Kurtsoa bukatzerakoan gazteok hainbat aukera izaten dugu uda xahutzeko. Hondartzara joateak eskaintzen duen errutinaz zeharo aspertuta, lagun batzuk beste aukera batzuen bila jarri ginen. Gure ideia nagusia, hotel edo ostatu bat bilatzearena zen, bertan lan egiten ikasi eta, zergatik ez, diru apur bat irabazteko. Hamaika lekutan galdetu eta gero, Oñatiko Arantzazuko Santutegiko ostatuan lana topatzea lortu genuen.

Testua eta argazkiak: Eder Merino

Uztailaren 1ean gerturatu ginen bertara. Ostatuko zuzendariak lekua erakutsi eta egingo genuen lana azaldu zigun: ostatuko logela guztiak garbitzea, oheak egitea eta antzekoak. Lehenengo egunak nekagarri samarrak izan ziren, ez baikeunden ohituak horrelako lanak egitera. Gainera, bertako beharginak momentu oro genituen gain-ganean gauzak nola egin behar ziren azaltzeko.

Gure denbora librean zail genuen Arantzazuko ostatatik irteteko, autobusak domeketan baino ez ziren ibiltzen eta Oñati hamar bat kilometrotara zegoen. Beraz, bertan pasatzen genuen egunak, berbaldi interesgarrien artean eta paisaia ikaragarriez gozatuz, Arantzazuko inguru paregabekoa baita.

Horrez gain, bertako langileekin harreman estua sortu zen. gehienak etorkinak ziren, Dominikar Errepublikakoak, txileta-

rrak, brasildarrak, peruarak... Beraiekin lan egiteak gu pertsona moduan haztea eragin zuen. Kontatzen zituzten historiak benetan hunkigarriak ziren, beraien semeak beraien jatorrizko herrialdeetan baitzituzten eta haurrak hona ekartzea zuten amets nagusia. Irabazitako guztia hara bidaltzen zuten, eta garbitzaile moduan ez ezik, beste lan batzuk ere zeuzkaten, diskoteketan, tabernetan. Bizipen gogorrak ziren, behin baino gehiagotan negargura ez nuen urruti izan, a zer nolako egoera! Gu diru apur baten bila, gero jaietan xahutzeko eta beraiek bizirauteko behar dutenaren bila! Zelako mundua!

Denbora komunak garbitzen, gelak garbitzen eta apaintzen, platerak prestatzen, orokorrean ostatua garbitzen pasa genuen. Askotan haserreak egon ziren, lanari dagokionez, baina bertako ingurugiroak lasaitzen laguntzen zuen. Bertan

ikusten zen, gure bizi estatusari esker, lanarekiko ohitura ezak sortzen duen iskanbila. Azkenengo eguna iritsi zen. Nolabait esateko, orain arte bizitakoa bigarren bizitza bat izan zen, hau da, bizitza bat gure herrian genuen, axolagabeke-rian oinarritua eta lanik egin gabe. Bigarren bizitza honetan, benetazko errealtateaz ohartu ginen, zein gogorra den diru apur bat irabaztea, familia urruti izatea eta inork egin gura ez dituen lanak egitea. Azkenik autoa hartuta bertatik urrundu ginen, bertan bizitako esperientzia baliagarria etengabe oroitzuz, gure bizitza errealeratu bueltatuz.

Uztaila osoa "galdu" genuen bertan, hondartzara joan gabe, askotan lan egiten, batzuetan aspertuta, giro ederrean beti. Uztaila neketsua izan zen, baina guztiaren gainetik errealtateaz ohartzen lagundu zidan uztaila berezia izan zen.



Bully eta Charly, kamiseta-diseinugileak

Eguzkia sutan jarri duten gazteak

Carlos, "Charly" lagunentzat eta Berrizkoa. Bully, "Bully" denontzat eta sondikatarra. Orain dela urtebete kamisetak diseinatzen hasi ziren "Eguzkia sutan" lelopean, denbora libre betetzeko.

Testua eta argazkiak: Oihana Astobieta eta Alaitz Zabala



Nondik sortu zen ideia?

Bioi gustatzen zitzaigun kamiseten kontua, eta azkenean animatu egin ginen.

Eta zelan eraman zenuten aurrera?

Batzartu ginen egindako mila irudi eta esaldi aurrean genituela, eta hortik irten zen "Eguzkia sutan" esaldia.

Eta nondik dator izen hori? Zergatik eguzkia?

Eguzkia "la ostia" da. Inoiz amaituko ez dena. Bizitzaren iturria. Eta beti gori-gori dagoenez "sutan" ipintzea pentsatu genuen.

Merkatua zabala da? Euskal Herrian kamiseta asko egiten dira, ezta?

Hemen mundu guztiak egiten ditu kamisetak! Lar! Eskari itzela dago.

Eskaria kontuan hartzen duzue?

Bai. Argi eta garbi emakumezkoak dira eroslerik ohikoenak.

Kamiseta mota ezberdinak dituzue?

Kamiseta mahuka laburdunekin hasi ginen eta orain denetarik daukagu. S-tik XXL-rakoak eta 6 urte artekoak, kolore eta modelo ezberdinetan.

Eta etorkizunera begira?

Buf! Hori oso zaila da! Orain arte ezagunek erosi izan digute gehien bat, baina web-orria amaitu ondoren, mailing bat egingo dugu eta honela espero dugu jakitea benetan gustukoa den gure produktua ala konpromisoz erosi diguten. Hala balitz, abentura ederra izan da eta kito!

Zelan saltzen duzue produktua?

Batez ere ahoz aho esanda. Denda pare batean ipintzea ere pentsatu dugu. Telebistan ere atera da eta Sondikako Hegalariak futbol sala taldekoek ere gure logoa dute kamisetetan.

Zein da zuen helburua? Egunen baten Txorierrin Kukuxumusu bat edukiko dogu?

Hobe! Baina momentuz hori ametsa da guretzat. Errealista izan behar da.

Azaldu zuen web-orria.

Helbidea www.eguzkiasutan.com da. Hiru arlo ditu: Kamisetak, munduan zehar eta kontaktua. Momentuz euskaraz dago eta denborarekin hizkuntza gehiagotan ere ipiniko dugu.

Interesatuta dagoena zelan jar daiteke zuekin harremanetan?

Web orrira idatz dezatela. Kritikatzeko ere bai, e!

GOIZOTZ
Janari izoztuen denda

Orizabal Zentro, 3
Telefonoa: 94 434 00 00
www.goizotz.com

94 434 00 00
www.goizotz.com

Miguel Angel Delgado, gortak eta
Londres

090 700 700 44 700 00 00

aldeko
horiz. kimika
TEL: 94 434 00 00

Araska Prieta Aguilera
Unibertsitateko
Profesionala


94 434 00 00
www.aldeko.com

-Operazioak:
94 434 00 00

“Mailari eutsiko deutso Athleticek aurten”

Beste garitanotar bat dogu bisitan **AIKOR!** aldizkariaren orrialdeetan. Oraingo honetan Angel, *Ondarru*, dogu solaskide, Mane bere kide separaezinagaz batera Athletic entrenatzen hasi dalako. Azkenenean San Mameseko etxeko aulkian esertzeko aukerea etorri jako; Athleticen onurarako, ea ondo egiten dauan.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza



EUROPEA
COMMISSION

Agencia europea de información sobre el medio ambiente
European Agency for the Environment

Bruselas (B)
Brussels (B)

0204 111 22 22 (100 00)
0 2047 11 22 22 (100 00)

OBRAS Y REFORMAS
 902 99 000 94 91 2 912 992 999
Gomtxa
 Revestidos integrados
 Cerebrón bioactivado
 14 años de experiencia
 7 años
 -BETONADO-
 902 99 000 94 91 2 912 992 999
 902 99 000 94 91 2 912 992 999



**Carmendia
ardoak**

Tram. pub. 37-48
Carmendia
Tel./Fax 94 425 00 40

LAURENCE
J. ELORRIAGA
Placido Domingo / Placido Domingo / Placido Domingo
CONDUCTOR
TEL. 04-100 88 41
LAURENCE J. ELORRIAGA



Broadway Sales, LLC
 Telephone: 844-33-33-34
 407-33-3333 (Toll-Free)
www.broadway.com
 e-mail: info@broadway.com



Hainbat aldiz Athletic entrenatzeko kinieletan eta azkenean lortu dozue... Zer esangura dau zuretzat Athletic entrenatzeak?

Athletic entrenatu ahal izatea euskal entrenatzaile guztion asmoa da, are gehiago bizkaitarra izanda. Gura izango gendukean taldea denboraldiaren hasieratik hartutea, baina ezin izan da, eta egoera hori ego-kitu jaku. Hemendik aurrera, lan egin behar dogu mailari eutsi ahal izateko eta taula erdian amaitu ahal badogu, askoz hobeto.

Uste dozu lehenago etorri ahal jatzuela aukerea, ala garaiz heldu da?

Aukerak sortzen dira sortu behar diranean, ez batek gura dauenean. Holan heldu jaku eta gu pozik.

Zer barri emon deusazue taldeari?

Etorri ginanean gabezi nabarmen bat ikusi genduan, hau da, gol asko jasotzen ebazan taldeak. Beraz, gure asmoa izan da hasieratik defentsa-lana indartutea. Horrek esan gura dau lau defentsen lana ez ezik, erdilarien zein aurrelariena be landu behar dala. Izan be, futboleant batera joan behar dau taldeak: denok defendatzen dogu eta danok joaten gara aurrera. Hasieran gol jasotze hori etetea lortu genduan, baina azken bolada honetan berriro erraz jasotzen ari gara. Dana dala, era batean ala bestean, mailari eutsiko deusagula uste dot.

“Athletic entrenatu ahal izatea euskal entrenatzaile guztion asmoa da; are gehiago bizkaitarra izanda”

Mailari eusteko borroka horretan Erreala be badago. Zelan bizi dozu bere egoera semeak bertan jokatzan dauela kontuan harturik?

Nahikoa dekot neureagaz. Gure helburu bakarra Athletic salbatzea da eta horretan gagoz lanean Mane eta biok. Dana dala, futbola horrelakoa da eta bakotzak berea defendatu behar dau. Batek irabazten badau, beste batek galdu behar.

Mingarria izan zan Athleticcek Gaizka semea orain dala bi urte fitxatu ez izana?

Bai, pena izan zan etxekoak betidanik izan baikara Athleticzaleak. Halanda be, Gaizka profesionala da eta onartu behar eban Errealaren eskaintza. Garai horretan, Errealak Eibarregaz (orduko Gaizkaren taldea) eban hitzarmena eta horregaitik merke ateratzen jakon jokalaria. Athleticcek, ordea, bere klausula ordaindu behar eban, baina ez eban diru hori ordaindu gura zelai erdiko jokalaria baten truke.

Gertutik



- **Izena:** Angel Garitano Ondarru
- **Jaioterria:** Ondarroa
- **Jaiotze-data:** 1950/09/21
- **Ibilbidea:** Barakaldo (1981), Sestao (1982), Deportivo Alavés (1983, 1997-2003), Figueres (1984-86), Bizkaiko gazte selekzioa (1987), Lleida (1988-95), RCD Mallorca (1995), Levante UD (1996)
- **Lorpenak:**
 - Bizkaiko lehenengo bigarren entrena-tzailea izan zan 1981an.
 - 1985ean Bigarren mailara igo zan Figueres taldeagaz.
 - 1993an Lleida taldeagaz Lehenengo Mailara igo zan.
 - 2001ean UEFako Kopa galdu eban Alavesegaz Liverpoolen aurka. Gaur egun be gogoratzen da 5-4 amaitu zan final hori.
- **Bihotz zurigorria:** Ander anaia Athleticceko jokalaria izan zan; Gaizka semeak Athleticen jokatu dau eta orain Errealean dabil; Juanito Urkizu jokalaria eta entrenatzaile ohia amaren osaba da; eta emaztea Koldo Agirre jokalaria eta entrenatzaile ohiaren lehengusina.

Iaz gorriak ikusi ebazan mailari eutsi ahal izateko eta aurtan bide beretik dabil Athletic. Bitartean iskanbila asko egon da klubean. Arazoa taldean dago ala klubean oro har?

Aspaldian gauzak ez dira argi ikusten Athleticen. Real Madril eta Bartzelonagaz batera beti Lehenengo Mailan egon dan talde bakarra da, baina gauzak aldatu egin dira. Gorabehera asko egon dira (presidente eta entrenatzaile barriak...) Athleticen, eta horrek esan gura dau zerbait ondo ez dabilala. Athleticen ezaugarriarik nagusi-ena lasaitasuna da eta azken bolada honetan ez da irudi hori islatzen.

Denboraldi bakar bat sinatu dozue. Horrelako joera gaur egun arraroa da, ezta?

Guk beti egiten dogu. Izan be, futbola oso aldakorra da eta zera gerta daiteke: bi urteko kontratua sinatu eta bigarren denboraldian beste presidente bat etorri eta beste





ETXAKO BERRIKUNTZEN ERRODAGARRIA

VERGARA DE PÉRIODES, S.L.

Gandia eta derbiak

902 330 009

vergara.com



entrenatzaile bat gura izatea. Ez dogu oztopoa izan gura. Direktiba gugaz pozik badago, lanean jarraitzen dogu; osterantzean, alde egiten dogu.

Eta hurrengo denboraldia?

Ikusiko dogu denboraldi honetako amaieran. Ordura arte, gogor lan egin, puntuak lortu eta gitxika-gitxika zulotik atera beharko dogu. Mailari eutsi bezain laster, denboraldia aztertuko dogu eta orduan erabakiko dogu zer egin. Gure asmoa hemen gelditzea da, eta gure ibilbideari erreparatzen badeutsazu, momentuan konturatuko zara lekuetan denbora asko gelditzea gustatzen jakula. Gasteizen edo Lleidan, zazpi urte egon ginan, esaterako. Eta Athleticen egongo ahal gara! Horrek esan gurako eban gau-

zak ondo egin dirala.

Nondik dator Manerekiko harremana?

25 urte daroaguz alkarregaz. Lagunak ginan eta batera atera genduan entrenatzaile-txartela. Mane Sestao entrenatzen hasi zanean, nik bertan jokatzeko neban eta berari lagunduten hasi nintzan. Eta oraintxe arte...

Zein da zure rola bikote horretan?

Esaten da errieta egiten dauena zeu zarela eta jokalaria kaz harremanik estuena dauena be bai...

Gure nortasuna dala-eta, baktokak bereari ekiten deutso. Ni irekiagoa naz eta jokalaria kaz harreman estuagoa dot, bai berdegunean, bai kanpoan. Manek, ostera, zenbat eta hitz gutxiago, orduan eta hobeto. Osagarriak gara.

Uku...
Gogoratu...
Gogoratu...
Gogoratu...
Gogoratu...
Gogoratu...
Gogoratu...
Gogoratu...

Leinak

www.leinak.com

Tratamiento de...
...
...
...
...
...
...
...

Oguiza

Harta & Leinak

...
...
...
...
...
...
...
...

...
...
...
...
...
...
...
...

ZURAS

Estetika eta masajea

...
...
...
...
...
...
...
...

SORIA

APIRIKAREN 27^{ena}

MATZAREN 1^{ena}

DANUNTZAKO ISILALDIAR

NEILA^{ak} LAKUAK

LAKU BELTZA

URREION MENDIA

APUNTATZAKO: 2017-04-07

LEKUTU MUGATTIAK

INBIKAZO GELAKO:

MARTIAREN 1^{ena} DARIKHELAN

19:00h. - 21:00h.

Tlf: 94 608 82 85

Email: arratsagorri@leinak.com

Ez dozu inoz pentsatu lehenengo entrenatzailea izatea?

Ez. Gauzak alkarregaz ondo joan dira eta ez dot ikusten aldatzeko arrazoirik.

Zure ibilbideari begira, hainbat talde eta hainbat arrakasta dagoz. Zein da zurentzat garrantzitsuen?

Iaz Levantegaz Lehenengo Mailara igo ginan. Oso urte gogorra izan zan. Azaroan joan ginan hara eta helburu bakarra igozteaz zan. Beraz, presio asko egon zan urte osoan zehar. Ganera, jokalaria asko hainbat lekutatik etorritakoak ziran eta batzuek hizkuntzagaz arazoak ebezan.

Eta igoera lortu eta gero, zergaitik ez zenuen jarraitu?

Iazkoa ez zan izan Levante aldean egon ginan lehenengo aldia. Presidente eta ezagutu genduan, baita bere lan egiteko era be. Geurea desberdina danez, ez jarraitzea erabaki genduan inongo arazo barik. **Beste alde batetik, Alavesegaz zerua ukitzeko zorian egon zinien Dortmunden jokotutako Liverpoolen kontrako UEFAko final hartan...**

Alavesera joan ginanean, 2. Mailan zegoan eta gitxika-gitxika taldea osatzen joan ginan. Lehenengo urtean igoera lortu genduan eta hurrengoan mailari nekez eutsi geuntsan. Handik aurrera, bi aldiz joan ginan UEFARA eta horietako batean finala jokatu genduan: 5-4 galdu Liverpoolen kontra. Ziurrenik ez genduan zorte handirik izan, baina futbola horrelakoa da. Jende askok UEFako finalik onena dala esaten dau. Dana dala, finala jokatzeko, ailegatu egin behar da lehenik eta behin. Alavesen azkenean buruz jokatzen eben jokalariek. Denbora asko emon genduan, eta taldea eraikitzeko aukerea izan genduan. Hori futboleant ez da hain erraza eta gehienetan entrenatzaileoi ez deuskue gure egitasmoa garatzeko astirik emoten.

“Ez dot inoz pentsatu lehenengo entrenatzailea izatea, gauzak Manegaz batera ondo joan diralako”

“Gehienetan futboleant entrenatzaileoi ez deuskue gure egitasmoa garatzeko astirik emoten”

Ondarru Aikor!laguna


Ondarru eta garitanotarrek lotura haundia dabe Txorierriagaz. “Kanpoan ibili nazenean kanpoan bizi izan naz, baina Alavesen egonda, egunero joaten nintzan hemendik, Deriotik, Gasteizera”, esan dau Angelek. Horrezaz aparte, **AIKOR!** aldizkariagaz be harreman berezia dau Ondarruk, aikor!laguna baita. “Erre-

bista gustetan jat eta helduten dan bakotxean irakurtzen dot. Ganera, papera ona da eta kalitatezko aldizkaria da. Aikor!lagun egin nintzen **AIKOR!** aldizkaria ahal dodan neurrian lagundu ahal izateagaitik eta euskara eta euskal kulturari atxikimendua adierazteagaitik. Etxean euskaltzaleak izan gara betidanik”.



Hästens 
denda
Cualtón amebakero
ohak

www.hastens.com



ARTEAGA kaltxoi-denda

Derioko Sektaria • 94 454 51 47 • DERIO

Ekintzailea zara?

Gizarte ekintzaile batek erraz egiten du aurrera eta aldaketara trauma barik egokitzen da, elementu positiboez baliatuz eta arazoak gaindituz. Enpresak zailtasun barik sortzen dituen gizarteak ekonomia-ehuna indarberritzen du etengabe, eta lehiatzeko gaitasuna sendotu egiten du.

Iniziatiba duen pertsona bazara, zeinak arriskuei (kontrolatuta) aurre egiteko prest baitzaude, zure negozioa izatea gustatuko balitzaizu, egiten dituzun gauzek ilusionatu egiten bazaituzte, saiatua bazara, sormenezkoa bazara, ideiak badituzu eta horiei, euren bideragarritasuna bermatzeko, orduak emateko prest bazaude, ezaugarri asko dituzu pertsona ekintzailea izateko.

Pertsona ekintzailea bere etorkizuna egiten duena da. Pertsona ekintzaileak aukerak topatzen ditu besteek ez zegoela pentsatzen zuten lekuetan.

Pertsona guztiak nortasun ekintzailea garatu ahal dugu. Zeuk ere egin dezakezu; are gehiago, egin behar duzu! Baina, hori lortzeko, zeure buruarengan sinistu behar duzu, eta zure bizitza ez ezik alboan ditu-

Martxoan zehar Pertsona Ekintzailearen Eguna ospatu da Euskal Herrian eta Estatuko beste Autonomia Erkidegoetan. Behargintza Txorierriko Enprender Arloak ekintza horren alde egin, eta enpresa sortzea helburu duten ekimen ekintzaileak bultzatu egiten ditu.

zuen ere onera aldatzea desiratu behar duzu. Era berean, ez diozu beldur izan behar zure irudimena eta ideiak aske uzteari, sormenezko pertsona izateari, azken batean.

Enpresa egitea abentura edota amets bat baino gehiago da, bizitza-aukera da. Bere enpresa-ideia aurrera eramatera au-


sartzen dena, gogo berezia du, zeina landu eta sendotu behar baitu, esperientzia zaila da-eta.

Behargintza Txorierriko 2006an bildutako datuen arabera, ekintzaileen %54 gizonezkoak dira eta %46 emakumezkoak. Txorierriko ekintzailearen perfila hurrengo da: 25 urtetik 35 urtera arteko gizonezkoa, erdi mailako edo goi mailako titulazioa duena. Hala ere, 25 urtetik beherako emakumezkoak eta 35 urtetik 45 urtera bitarteko emakumezkoak adina bera duten gizonezkoak baino ekintzaileagoak dira. Izan ere, emakumezko horiek ez dute familiako kargarik edo karga horiek txikiak dira, eta emakumezkoek euren garapen pertsonalari eta profesionalari denbora gehiago eman ahal diote.

Pertsona Ekintzailearen Eguna enpresariak izan nahi dutenei zuzenduta dago, eta hori lortzeko eskura duzu Behargintza Txorierriko Enprender Zerbitzua.

Txorierri gizarte ekintzailea bihurtu ahal dugu guztion artean, zeinak bere etengabeko garapena bermatzen baitu.

TXORIERRIKO EKINTZAILEEN PROFILA



**EMPRENDER ZERBITZUA
BEHARGINTZA TXORIERRI**
Polígono Berreteaga 13 – A
48150 – Sondika (Bizkaia)
Tfno: 94.453.63.70
www.e-txorierri.com
www.garapen.net

BEHARGINTZA TXORIERRIKO EMPRENDER

TIK TAK
BIZKAIKO EKINTZAILEEN ERKIDEKO
TEL: 94 454 65 66

PROPOSICIÓN JABALI
UNIVERSIDAD DE VALLADOLID
FACULTAD DE CIENCIAS
ECONÓMICAS Y EMPRESARIALES
Módulo de Estadística I y II

2x1
DISEÑO DE PRODUCTOS
DE 10 A 15 AÑOS DE EXPERIENCIA
www.diseño2x1.com

BAR RAFI
HOPKINS BARRAQUE - HENRI LUXEM
Rafael García Tejedor

WIP LAMP IN
TELE DISEÑO (BARRAQUE)

IT'S THE NEW
WIP LAMP IN
TELE DISEÑO (BARRAQUE)

“Dirulaguntzak jasotzea ez da batere erreza”



Asoma Proyectos Digitales S.L. enpresa 2005ean sortu zen, eta teknologia berrietan dihardu. Enpresaren jardura nagusiak hurrengoak dira: web orrialdeak egitea, paperezko argitalpenak eta irudi korporatiboa. Halaber, langileei eta administrazio publikoari zuzendutako ikastaroak ematen dituzte.

Nola sortu zen ideia?

Behargintza Txorierrik emandako e-business teknikari-kurtsu batean lau lagunek elkar ezagutu genuen 2003an. Gure enpresa sortzea pentsatu eta, azkenean, hiru

lagunek eraman genuen proiektua aurrera.

Zeintzuk dira izan dituzuen zailtasunak?

Hasierako tramiteak nahiko korapilatsuak dira, eta administrazio publiko batzuek laguntza gutxi ematen dute. Enpresaren forma juridikoa aztertzen eta horren izena aukeratzen ere eman genuen nahiko denbora. Beste alde batetik, aholkularitza zerbitzu batzuek gure arazoak konpondu baino, proiektua moteldu egin ziguten, eta arazook guk konpondu behar izan genituen.

Zein motatako urratsak eman dituzue, ideia aurrera eramateko?

Behargintza Txorierritik laguntza handia jaso genuen, aholkularitza emateaz gainera, lehenengo urteetan lokala alokatu baitziguten oso merke. BBK Gazte Lanbidean fundazioak tramiteak betetzen lagundu zigun. Tramite horiek nahiko korapilatsuak dira, eta edozein akatsek ondorio larriak ekar ditzake. Horregatik, aholku eske profesionalengana joatea gomenda-

tzen dugu.

Eusko Jaurlaritzatik eta Enplegu Institutu Nazionaletik dirulaguntzak jaso ditugu eta, horiei dagokienez, dirulaguntzak jasotzea ez dela batere erreza argitu nahi dugu. Institutuz askok zalaparta handiz zabaltzen dute komunikabideetan gazte ekintzaileei zuzendutako laguntzak ematen dituztela, baina eurengana jo eta bizkarra ematen dizute.

Nola baloratuko zenukete esperientzia?

Positiboki. Gainera, kontuan hartu behar da enpresa berrientzat lehenengo hiru urteak ezinbestekoak direla. Negozioa sendotuz doa pixkanaka-pixkanaka, eta horixe da, hain zuzen ere, gure helburu nagusia. Hobetu eta negozio-bide berriak zabaltzea dugu asmoa.

“Erabakiak zuk zeuk hartzen dituzu”

Gomendioak datozen sustatzaileentzat.

Lehenengo eta behin, pazientzia izatea. Enpresa abian jartzea ez da egun batetik bestera egiten den gauza, denbora inbertitu behar da. Eta irabaziak ere ez dira berehalakoak. Negozioarekin hasi eta hasierako tramiteei ekin bezain laster, zalantzak desagertuz joango dira kasu gehienetan. Era berean, lan-giro ona sortzea ezinbestekoa da.

Oso esperientzia positiboa dela uste dugu, egunero zerbait ikasten da-eta. Horrezaz gainera, ez zaude beste inoren menpe, eta erabakiak zuk zeuk hartzen dituzu.

Asoma Proyectos Digitales SL
Larragoiti Jauregia
Torrelarragoiti Ind. z/g, mod. 2
48170 – Zamudio
Telefonoa: 94 656 99 04
Faxa: 94 656 99 01

“Tramiteak nahiko korapilatsuak dira, eta aholku eske profesionalengana joatea gomendatzen dugu”

ZERBITZUAREN BIDEZ SORTUTAKO ENPRESAK

GALAIISA
Lanbide eta Informatika
94 420 07 100 - 94 420 10 100
Zuzendaria: J. J. L. GALAIISA




Dirulaguntza zuzendaria

LUR ekodenda

Dirulaguntza zuzendaria

Telefonoa: 94 656 99 04
Aparatuak, Kalkulagailuak, 20. Erdialdea BILBAO

Heldu deutsagu Txorierrin be



Martxoaren 22an Karrantzatik urten, eta hilaren 26an Txorierrira heldu zan Korrika. Euskararen aldeko lasterketa 18:00etan Erandio Goikoan sartu, eta handik Bilbora jo eban. Bilbotik Sondikara ordubete luzeko atzerapenagaz heldu zan —kalkuluen arabera, 22:00etan sartzekoa zan—, baina korrikalariak egindako ahaleginari esker,

35 minutu aurreratzea lortu zan. Euria barra-barra, eta Korrika tipi-tapa. Lekukoa eskurik esku pasatu zan Erandio Goikotik Larrabetzuraino, eta Txorierriko euskaltzale guztiek heldu egin eutsien Korrikari; heldu egin eutseen herriari, hitzari, alkarlanari, euskerari eta lekukoari. Ez eban inork huts egin. Ehunka korrikalari, giro

Belenek eta Olgak omenaldia jaso eben





Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx



Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx

Zure gurekiko 9010ko **DESKONTUA**

itzela, festa handia, euriari beldurrik ez... Txorierrik euskerarekiko konpromisoa berretsi eban. "Oso pozik gagoz, sinistu ezinik oraindiño", esan deuskue antolatzailleek, "Partehartze haundia izan da, eta partehartzaile guztiei eskerrak emon gura deuseguz. Orain guztiok Iruñera joan behar dogu domekan, euskarari heltzera".

Beleni eta Olgari omenaldia

Aurtengo Korrikak euskal emakumea omendu dau, euskararen biziraupenean izan dauen garrantzia eta ezinbesteko papera goraipatzeko. Eta Txorierrin omenaldi txiki bat, baina bihotz-bihotzez antolatua, egin jaken AEK Txepetxa euskaltegiko Belen Ganari eta Olga Loroñori, urteetan euskararen alde egindako beharra eskertzeko. Olgak 13 urte eta Belenek 40 urte daroez euskara irakasten, eta, horregaitik, lekukoa eroateko ohorea izan eben azken kilometroan. Belenek 40 urte horretan ez dau inoiz korrika egin, beti antolatzela lanetan ibili dalako, eta, beraz, ondo merezitako saria euki eban. Ganera, Edurne Brouard Korrikaren arduradun nagusiak esker onez lekuko txiki bat oparitu eutsan, Korrikaren izenean.

Korrika apirilaren 1ean amaituko da Iruñean; hurrengo hitzordua urte bi barru izango dogu.


Argazkiak: Aner Mentxaka



Sondika



Lezama



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Ondakoa Kalea, 1 (Jelkurren aldean)
Telefonoa: 94.433.84.13

ANTZERKIA
SONDIKAKO KULTUR ETXEA
15-16 Martxo


TXITXARRA ETA INURRIA
Morkelife
(4. liburuko liburuko liburuetan,
liburuetan)

Liburua: 3,00
+ 1,00 urteko 1,00

ANTZERKIA
SONDIKAKO KULTUR ETXEA
15-16 Martxo

TXITXARRA ETA INURRIA
Morkelife
(4. liburuko liburuko liburuetan,
liburuetan)

Liburua: 3,00
+ 1,00 urteko 1,00

Agurtiaren 15. eta 16. egunak
15.16 Martxo

ANTZERKIA
SONDIKAKO KULTUR ETXEA
15-16 Martxo



TXITXARRA ETA INURRIA
Morkelife
(4. liburuko liburuko liburuetan,
liburuetan)

Liburua: 3,00
+ 1,00 urteko 1,00

ANTZERKIA
SONDIKAKO KULTUR ETXEA
15-16 Martxo

TXITXARRA ETA INURRIA
Morkelife
(4. liburuko liburuko liburuetan,
liburuetan)

Liburua: 3,00
+ 1,00 urteko 1,00

Agurtiaren 15. eta 16. egunak
15.16 Martxo

ANTZERKIA
SONDIKAKO KULTUR ETXEA
15-16 Martxo

TXITXARRA ETA INURRIA
Morkelife
(4. liburuko liburuko liburuetan,
liburuetan)

Liburua: 3,00
+ 1,00 urteko 1,00

ANTZERKIA
SONDIKAKO KULTUR ETXEA
15-16 Martxo

TXITXARRA ETA INURRIA
Morkelife
(4. liburuko liburuko liburuetan,
liburuetan)

Liburua: 3,00
+ 1,00 urteko 1,00

Eliza ortodoxoa, Derioko

Domeka goiza da, eguzkitsua, Derioko Aldekonetik San Kristobal eliza zaharrera doan bidea hartu dugu. Jende nahikotxo doa oinez; apur bat lehenago autobusetik jaitsi direnak. Elizara hurbildu ahala lagun gehiago ikusi dugu; asko kotxez igo dira bertara. Adin guztietakoak daude, baina gehienak matrimonio gazteak dira, euren

seme-alabekin. Zer dauka berezia egoerak? Ba, esate baterako, belarria findu arren ez dugula esaten dutena ulertzen: ez dabilta euskaraz, ez gaztelaniaz, errumaniera da darabilten hizkuntza. Elizako ate nagusiko alde banatan kandela asko dagoz sutan, eta jendea elizara sartu eta irten dabil kandelak pizten dituzten bitartean. Barruan kan-

tuak eta otoitzak, eta komentatu digutenez luzera doa: hiru edo lau ordu iraun dezake mezak. Errumaniako eliza ortodoxoaren mezara etorritakoak dira, ia denak errumaniarrak.

Beste egun batean, lasaiago, bertako apaizarekin gelditu gara, David Petru errumaniar gaztearekin. Euskal Herrian dagoen eliza ortodoxo bakarraren apaiza da bera.

Noiztik zaudete Derion?

Gure parrokia iazko apirilaren 15etik dago martxan. Parisen dagoen eliza metropolitarren menpe dago geurea. Hemengo komunitate errumaniarrak apaiza eskatu, eta ni bidali ninduten orain dela urte bi. Lehenago Begoñako Santa Monica komentuan egon gara, baina bertako mojen ordutegi liturgikoa eta gurea adosten zaila zenez, beste leku bat eskatu genion Obispadoari eta hona etortzeko aukera izan dugu. Hemen oso pozik gaude, geuk zabaldu eta geuk ixten dugu. Lasaiago gaude, gure kultura bakean egin ahal dugu, ez dugu inor molestatzeko.

Zenbat jende hurbiltzen da hona?

Igandero 100 lagunetik gora etortzen da. Euskal Herrian ez dago beste elizarik. Hurbilenak Santanderren eta Logroñon daude. Gure eliztar gehienak Bizkaiko herrietatik datoz, nahiz eta autobusa hartu behar dutenentzat lehen orduan heltzea erraza ez izan, Bilbokoak ez direnentzat batez ere. Garai honetan jende gehiago dator, izan ere Pazko bijilia garaia berezia da guretzat. Asteazken, ostiral eta larunbatetan "bezperak" ospatu eta konfesioa hartzen dugu; eta igandeetan meza nagusia eta maitinak. Larunbat arratsaldeetan bataioak —iaz 50 bataio izan genituen—, gero ezkontzak... Kontutan hartu behar da Bizkaian 4.000 errumaniar inguru bizi direla.

Zeuen erritoak eta katolikoek ezberdinak dira?

Ez dira oso-oso ezberdinak, baina badaude berezitasunak. Gure mezak luzeagoak dira, ordu bi ingurukoak. Aurretik maitinak izanez gero, ia 4 ordu. Guk errumaniaraz egiten dugu. Hitzezko liturgia eta eukaristia ere luzeagoak dira. Beste alde

Testua eta argazkiak: Bestorrene



**Merceria
Xarmele**

merceria xarmele, s. r. l. - merceria xarmele, s. r. l.



**CAFETERIA
IAZI**

Eguneko menua eta
Menu berezia

CAFETERIA IAZI - Tel. 94 493 11 92 - 94 493 11 93

**Camiseria
Charcuteria
IMAZ**

camiseria charcuteria imaz, s. r. l. - camiseria charcuteria imaz, s. r. l.

(IMAZ)

camiseria charcuteria imaz, s. r. l. - camiseria charcuteria imaz, s. r. l.

San Kristobalen

*“Pozik gaude, gure
kultua bakean egin
ahal dugu eta ez dugu
inor molestatzin”*

batetik, aurpegia ikonoei begira izaten dugu, ekialdera, jendeari lepoa emanez. Une konkretu batzuetan baino ez gara jendeari begira egoten. Gure elizetan ez daude hemengo eskulturak; guk ikonoak besterik ez ditugu eta gure elizak oso margotuta daude. Eliza ortodoxoa bakarra da, baina errusiarrek, bulgariarrek, greziarrek eta abar... bakoitzak bere patriarka du. Patriarka guztiak berdinak dira, ez dago inor besteen gainetik. Metropolieta banatzen dira eta metropoliak apezpikutegetan.

Zein baldintzatan zaudete? Derioko jendeak nola hartu du zuen etorrera?

Urte bateko kontratua sinatu dugu obispadurekin. Hasi berriak gara hemen. Ez dugu alokairurik ordaintzen eta guretzat laguntza handia da une honetan, gastatzen dugun argia baino ez baitugu



ordaintzen. Bertakoen aldetik ez dugu kontrako iritzirik entzun. Aita Robertekin oso harreman estuak ditugu eta asko lagundu digu. Berarekin adostu dugu eliza honetan bost egun berezi-edo izango direla urtean. Horiek direnean, gure gauzak hartu eta lehen zegoen moduan utziko dugu eliza. Eta inork bertan ezkondu nahi badu, berdin, geure elizkizuna atzeratu edo aurreratu egingo dugu, eliza libre uzteko.

DEHONDO
HERRINGO TABERNA
Elaboración de platos de

**OSTIRALERO
SARTENAKO**

Arroz al estilo
- **1.000.000**
- Odiolotea
- **1.000.000**
- Colchada

Olita
Pasta hervida
Porción

10 €

Elaboración de platos de


Desiro
Il piacere di viaggiare in treno.
Per informazioni: 02-581.08.72

 **Ministero dell'Industria**
ETOREI

Meccaniche industriali, di legno
Tel. 041-4241-481-50
Modena (052) 3215151 **ARMANDO TESTA**

DERIV. FRUTADENDA



Sollube, 8
1.º andar, 8806-717 - ZIP 60
GOIÂNIA



Հանրապետության
Կրթության և գիտության
նախարարություն



Hotel Tryp Sondika

★★★

 *Ezkerdizate*
**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
 Y FISCALIDAD DE LOS RECURSOS**
Juan Carlos 



CALLE DE LA VILLA DE SAN SEBASTIÁN, 17 • 48940 SONDIKA • LEZAMA

Teléfono: +34 945 42 42 42 • Fax: +34 945 42 42 42

Email: reservas@trypsondika.com

TRYP

HOTELS

Gure Etxea Loiuko Jubilatuen Alkartea

“Bizitza sortzen dogu herrian”

Gure Etxea Loiuko Jubilatuen Alkartea 1982. urtean sortu zan, herriko lagun talde batek bultzatuta. Hasierako egoitza udaletxearen ondoan eben, “baina orduko alkateak itxi egin euskun 2002. urtean, ezer esan barik. Ordenadoreak jarri ebezan bertan”, azaldu deuskue Jesus Aurrekoetxea alkartearen presidenteak eta Jose Luis Azkue idazkariak. “Bizkaiko Nagusiak alkarteak bitartekariarena egin, eta lokal bat emon euskuen Kultura Aretoan, baina ez zan egoia”. Lokal barria Aransotegi enparantzan dabe, eta hori orain dala 4 urte inauguratu eben.

Testua: Itxaso Marina

Argazkiak: Gure Etxea Loiuko Jubilatuen Alkartea



Alkartean 174 bazkide zarie: 94 emakume eta 80 gizon. Zein da zuen filosofia?

Herriko nagusiak gauzak egitera animatzea dogu helburu nagusia, eta, horretarako, hainbat ekitaldi antolatzen doguz urtean zehar. Aurten, adibidez, Gipuzkoa alde-ara egingo dogu urteera bat, Errioxara be bai, Benidormera bidaia, Rias Baixasetara... Egoitzan beste ekintza batzuk bere egiten doguz: mus eta briska txapelketak, bazkariak, hitzaldiak...

“Herriko nagusiak gauzak egitera animatzea dogu helburu nagusia”

Arrakastatsuak dira horreek?

Egoitzan antolatzen diranean, bazkide guztiek edo gehienek parte hartzen dabe, eta egun bateko urteerak egiten direnean



AIKOR!lagun

Egin zaitetz euskararen lagun!

Izena: _____

Hetzidena: _____

Telefona: _____

et postea: _____

Bankukoa: 70 zenbakia: _____

Urteko kosta: 10 euro, _____. Honek kopuru bat: _____

Orri hau bidaltze bidez zure laguna: Aikor! Aretoa kalea 2, 48 - 46 170, Zornueta

Zure laguntzaren akerkaria buletara dogu!



be bai... Baina bidaia luzeak antolatu ezke-ro, beste kontu bat da: piperrak erein behar dabezela, ortua zaindu behar dabela...

Laguntzarik ekintzok aurrera eroateko?

Dirulaguntza Foru Aldunditik eta Uda-letik jasotzen dogu, eta horrezaz ganera, bazkideek kuota bat ordaintzen dabe urtero. Baina ez da nahikoa, izan be, emoten deuskuena baino gehiago gastatzen dogu, eta gure poltsikotik jarri behar.

Herriko bizitza sozialean be parte hartzen dozue aktiboki...

Bai, Santa Luzia eta San Pedro jaietan, Udalak urtero antolatzen dauan sardina-jana prestatzen laguntzen... Eta urte amaieran gaztaina eta bakon jana egiten dogu herri osoarentzat. Santa Ageda bez-peran be auzorik auzo ibiltzen gara kante-tan, eta batzen dan dirua DYAr emoten deusagu. Bizitza sortzen dogu herrian.

Nahikoak dira herrian nagusiei zuzendu-ta dagozan ekintzak?

Ez, gehiago egon beharko ziran: gimnasio-ren bat... Eta Udalak be lagundu beharko leuskigu tailerrak eta kurtsoak antolatzen: lorak zelan lantzen diran, zelan jagon

“Doguzan dirulaguntzak ez dira nahikoak, izan be, emoten deuskuena baino gehiago gastatzen dogu”

“Ekintza gehiago antolatu beharko ziran herrian, guk ordu libreak betetzeko eta entretenituta egoteko”

behar dogun lorategia... Gu nagusiak gara eta ordu libre asko doguz egunean, hori dala eta, ekintza gehiago antolatu beharko ziran, ordu horreek betetzeko eta gu entre-tenituta egoteko.

Zailtasunik badozue zuen eginkizunean?

Bai. Bertora gura dauana sar daiteke, baina begirune izan deiguen! Izan be, tabernara

etorten diran askok ez dabe gure lekua errespetatzen, eta batzuetan egoitzara sartu, eta ez dago tokirik guretzat. Eta hau Nagusien Etxea da! Esate baterako, behin baino gehiagotan gertatu jaku telebistan futbol partida eman, eta gazteak eserita egon; nagusiok, oster, zutunik. Eta barrero dinogu: Hau Nagusien Etxea da!

Zelango harremana dozue Txorierriko beste nagusien alkarreakaz?

Oso ona. Batzarrak izaten doguz eta urtero Nagusien Jaia antolatzen dogu. Era berean, alkarre guztiok gagoz Nagusiak Federazio-aren barruan.

Zelan ikusten dozue alkarrearen etorki-zuna?

Zuzendaritza-batzordean 8 lagun gara, eta guk 14 urte daroaguz geure karguan. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dogu jente barria sartu eta guri lekukoa hartutea. Guk orain arte egindako beharragaz jarraitutea gustatuko litxakigu: bidaia eta urteera ede-rrak antola daitezkan, herriko jaiak... Gauzak egitera anima gaitezkan, azken baten. Izan be, nagusiok etxean gelditzen bagara, akabo.

BIDE GORRI
 Bide gorriaren jaiak. Bide gorriaren jaiak.
 Bide gorriaren jaiak. Bide gorriaren jaiak.
 Bide gorriaren jaiak. Bide gorriaren jaiak.
 Bide gorriaren jaiak. Bide gorriaren jaiak.

Orma Ondo, S.A.
 Orma Ondo, S.A.
 Orma Ondo, S.A.
 Orma Ondo, S.A.
 Orma Ondo, S.A.

TXORIERRI
 Txorierri
 Txorierri
 Txorierri
 Txorierri

LEANDRO LANDITA
 Leandro Landita
 Leandro Landita
 Leandro Landita
 Leandro Landita

MARMOLCINTZA GOYO
 Marmolcintza Goyo
 Marmolcintza Goyo
 Marmolcintza Goyo
 Marmolcintza Goyo

ZAMUDIO
 Zamudio
 Zamudio
 Zamudio
 Zamudio

Hormona batek nerabeen umore txarra azaltzen lagun lezake

New Yorkeko Downstate Osasun Zentroko ikertzaile-talde batek adierazitakoaren arabera, THP hormona gazteen portaera azaltzeko lagungarria izan liteke. Hormona hori gorputzak berak sortzen du, estresari aurre egiteko, eta helduak eta umeak baretzeko balio du. Nerabeengan, berriz, kontrako efektua du, herstura handitzen die-eta.

Iturria: www.canalsalud.info

Zientifikoek arratoi emeak erabili zituzten ikerketak egiteko, eta horien hormona THP hartu zuten oinarritzat. Lehen aipatutako efektua egiaztatu zuten, eta sortzen duen garun-mekanismoa azaldu zuten. Gauza bera pertsonengan gertatuko balitz, fenomenoak gazte askok dituzten umore-aldaketak eta portaera azal litzake.

TPH hormona berezko lasaigarria da. Herstura-egoera eman, eta handik minutu pare batzuetara sortzen du gorputzak. Horrek neurona-aktibitatea lasaitu, eta herstura gutxitu egiten du. Era berean, indibiduoari laguntzen dio egoera horretara egokitzen.




Ikertzaile-taldeak arratoioren neurona-aktibitatea eta portaera aztertu zituzten, haurtzaroan, nerabezaroan eta helduaroan. Horrela, herstura-egoera baten aurrean jarri zituzten: 45 minutuan akrilikozko ontzi txiki batean izan zituzten, esperientzia klaustrofobiko bat simulatuz.


Bertatik atera, eta handik 20 minutura arratoi txikiak zein helduak baretzen hasi ziren, baina "nerabeek" herstura handiagoa zuten. Ikertzaileen esanetan, TPH hormonak eragina izan zuen asaldura-handitzean, eta hori egiaztatzeko, beste motata-

ko ikerketa batzuk egin zituzten.

Hormonak bide molekularren bidez izaten du eragina neuronetan. Bide horiek errezeptore moduan ezagunak dira. Nerabezaroan arratoiak ohiko errezeptore-

ak, zituzten, baina beste bigarren mota bateko errezeptoreak ere bai. Hormona gehitu zitzaizenean, erantzuna irrisua sortu zuten, erantzuna baretua egin beharrean.





Wikipedia, entziklopedia askea zure eskura

Jimbo Walesek eta Larry Sangerrek Wikipedia proiektua (www.wikipedia.org) abian jarri eben 2001. urtean. Hori entziklopedia askea eta hizkuntza anitzekoa da, eta wiki teknologian oinarrituta dago.

Hitz bik osatzen dabe Wikipedia berbea: *wiki*, *wiki wiki* hitzetik datorrena (azkar hawaiiarraz) eta *pedia*, *paideia* hitzetik datorrena (hezkuntza greko klasiko). Wikipedian batzen diran artikulua mundu osoko milaka boluntariok idazten dabez eta edozein pertsonak aldatu leikez artikulurik gehie-

nak. Izan be entziklopedia birtualak hurrengo filosofia hau dauka: erabiltzaileak alkarlanean aritu ezker, artikulua hobetu eta kalitatezko testuak sortuko dira. Eta informazioa munduko edozein pertsonaren eskura egongo da doan eta bere hizkuntzan.

Wikipedia Nupedia entziklopedia askearen alternatibatza jo eben egileek, eta Wikimedia irabazteko asmorik bako fundazioak kudeatzen dau. Wikipediak sei milioi artikulua baino gehiago ditu gaur egun, eta horreek 250 hizkuntzatan dagoz idatzita. Era berean, 16 edizino 50.000 artikulua baino gehiago dabez: ingelesa, alemana, frantsesa, japoniera, poloniera, italiarra, suediera, nederlandera, portugaleria, gaztelera, txinera, errusiera, finlandiera, norvegiera, esperantoa eta katalana.

Euskeraz idatzitako lehenengo artikulua 2001eko abenduan eskegi eben. Horrek Literatura eben izena, eta pixkanaka-pixkanaka beste batzuk joan dira gaineratuz; Afrika eta Nafarroako erregeen zerrenda, euren artean. Gaur egun 16.000 sarreratik gora dagoz euskeraz.

Euskera, Interneten nabigatzeko erabiltzen dogun hirugarren hizkuntza

Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) datuen arabera, Interneten erabiltzaile-kopuruak gora egin dau Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2006. urteko azken hiru hilabeteen. Horretara, bada, 14 urtetik gorako 766.400 lagunek Internet erabili dabe hiru lurraldeotan; EAEko biztanleen %41,6k hain zuzen be. Portzentaje hori 2005.

urtekoa baino %10,9 haundiagoa da.

Beste alde batetik, Interneten nabigatzeko euskerea erabiltzen daben kopuruak be gora egin dau, eta iazko azken hiruhilekoan 168.600 lagun (%22) ibili dira sarean euskeraz. Halan be, EAEko internautek gaztelera eta ingelesa nahiago dabez, sarean mugitzeko.

GOIKO TABERNA Bar-Restaurante
Facilities y lounge

- Best Dishes
- Cocktails y Salads
- Special drinks

Reservations y table arrangements for special occasions welcome

KINOK
Landmark

LANDMARK APARTAMENTOS

Avda. de la Paz 10 - 48100 BILBAO (Basque Country)
Tel: 94 411 11 11

G

100% GARANTIAZ
Bilabizko erabilera

Reservas y Salidas

Teléfono: 94 411 11 11
Fax: 94 411 11 11
www.garantia.com

LUTERIA LEZAMA

Reservas y Salidas
Teléfono: 94 411 11 11

Reservas y Salidas
Teléfono: 94 411 11 11

ZUTARRI S.L.

MANUFACTURA, DISTRIBUCION

Reservas y Salidas
Teléfono: 94 411 11 11

S.A. LUGY

Reservas y Salidas
Teléfono: 94 411 11 11

Korrika Kulturala 2007, bertso afaria Lezaman

Martxoaren 17an, zapatuaz, aurtengo Korrika Kulturalaren barruan, Txorierri eta Euskal Herri osoan zehar beste ekitaldi ugari, mamitsu eta interesgarri askoren artean, Lezaman bertso afaria antolatu du Zorritzketan Euskera Alkartek. Lekua, afaria eta laguntasun ekonomikoa Gaztedi jatetxeko Txemak ipini zuen, bere negozio berria bertsozaletasunez eta euskaltzaletasunez jantzi gura izan duelako.



Lezamak ez du esperientzia eta ohitura handirik bertso afarietan, zaletasuna bai oster, eta bertako euskera alkatetakoak jarri ziran antolatzen saio hori, Korrika Kulturalaren "aitzakiarekin". Eta gaitza

bada ere, lanpetuta baitabiltza bertsolariok aspaldion –sintoma osasuntsua edo osasun sintoma-, lortu dute hirukote ederra, ospetsua, kalitatezkoa, konpentsatua eta gustagarria konprometitzea: Xabi Paia Bizkaiko

txapelduna; Etxahun Lekue Bizkaiko txapeldunordea eta Larrabetzuko gainera eta Oihana Bartra Santutxuko bertsolari fina, Korrikak euskal emakumeak omentzen dituen urte berean. Eta idien aurretik karreteru, Jon Aurre euskaltzale eta euskaltzain urgazle ezaguna.

Jantokia berrogeita hamar bertsozalek bete zuten bertsolari eta bertso-jartzailearen inguruan. Gazte koadrila bat, honelakoetan inoiz falta ez diren Larrabetzuko talde majo bat, zamudioztar batzuk eta, antolatzaileekin batera Lezaman bizi den dozena eta erdi lagun. Bertsolarien ofizioari esker eta Jonek ondo akuilatuta, saio ederra irten zen, serioa eta alaia, maila onekoa, antzinako eta gaurko gaien inguruan, korrika baina prisa barik.

Leku aproposa, afari gozoa eta merkea, giro ona, aitzakia bako "aitzakia", lan polita protagonisten aldetik..., koktel irentsiagarria benetan! Zalantza bat geratu zaigu antolatzaileoi:

Ez ote dago,
Lezaman,
bertsozale gehiago?

Testua eta argazkia: Zorritzketan

Alfonso Arce
Alfonso Arce, El Jefe de la Banda (Banda)
Tel: 975 807 833
Fax: 975 807 833

ZAMUDIO MOTOR
Tel: 94 452 1616
94 452 1848
Pte. de Zamudio
94 452 1616

BAR BIDE-BI
Tel: 94 452 1616
94 452 1848
Pte. de Zamudio
94 452 1616

CORDON ROJO
Tel: 94 452 1616
94 452 1848
Pte. de Zamudio
94 452 1616

FLOR DE BORDA
Tel: 94 452 1616
94 452 1848
Pte. de Zamudio
94 452 1616

LA JOSTODAK
Tel: 94 452 1616
94 452 1848
Pte. de Zamudio
94 452 1616

Larrabetzun frontoirik ez, bolalekuak bai

Ondoko argazkia baino 100 urte lehenago-ko artxiboetan hurrengo batu zan: "Larrabetzuko urian 1816. urteko martxoaren 25ean, ni, Josef Gastelutarra, uri honetako biztanlea nazena eta behean sinatzen dodana, errege eskribauaren eta agiri honetan agertuko diran beste lekuko batzuen aurrean aurkeztu nintzan, udal kontseiluari honako hau proposatuz:

Auzotarrek baimena ematen badeuste, neure kontura egingo dodala bolalekua, estalgarria eta guzti. Hori udaletxearen aurrealdean, plazarantz begira egingo neuke. Nik, Josef Gastelutarrak, ordainduko dodaz gastuak eta 14 urtetan bolalekuak emango dituan irabaziak neuretzat izango dira. Handik aurrera uriko kontseiluaren esku geldituko zan bolalekua."

Eta auzokideek onartu egin eutsien proposamena... "Antonio Zorroza alkatea, Migel Olazabalagatarra eta Goiriko Martin erregidoreak, Tomas Urizartarra fiela eta sindikatu orokorra..."

Suteak ia uri osoa suntsitu eban 1829. urtean, orduko udaletxea tartean. Beraz, argazkian agertzen dan bolalekua geroago eraiki eben. Baina gerraren ostean kendu egin eben, uriaren berriztatze lanak zirala-eta. Foteri eta Zubitaldeko zerra ondoan bolaleku pribatuak jarri ebezen berandua-go. Sagardoa, txakolina pitxerra eta apustuak litzatekez horren irudia.

Elizalden, aldiz, bolalekua elizak berak antolatu eban, errentan jarriz. Gogoratuko dogunez, oraintsu desagertu da. Bertan aparkalekuak egin dabez. Zer egin!



XX. mendearen hasierako argazkia. Sakonean udaletxea eta aurrealdean bolalekua. Aurreko zuhaitzek adarrak nahiko altu dabez moztuta.



Elizalde ezagutzen daunak ikusiko dau non egoan bolalekua. Lehen planoan, gurutzeak estalita. Gerraren aurreko argazkia dogu hau.



"LAIA HOTEL MUSEOA"



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi eta dutxa inguratzailea.

Aurreko galderaren erantzuna:

15.a

Irabazlea:
Ainara Dañoibeitia



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museon, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne. Hilabete honetako galdera zera da:

Zein da Zamudioko Kamara Korralaren webgunea?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).



sukaldaritza

Bakoren bazterra

Erramu adarra



**Iñaki Suarez,
sumillerra**

Txakolinari buruzko lehenengo aipamenak XIII. eta XIV. mendeetan batu ziren Portugaleteko ordenantzetan. Itsasontziei debekatu zieten kanpoko ardoak lurreratzea, ez bazuten hartzen kantitate berdinean hemengo txakolina. Aurkitu den lehenengo aipamena (Chacolí) 1622koa da eta errege artxiboetan egin zen; txakoli aipamena 1893koa da.

XIX. mendearen erdialdean, txakolina baserriko kontsumorako murriztu zen *Oidium* izurritearen ondorioz. Harrezkero, suspertzea motela izan da, harik eta 1994an Bizkaiko Txakolinaren Batzorde Erregulatzaila sortu zen arte. Gaur egun, asko zabaldu da eta puntako teknologia darabilten upategi moderno asko dira; baita txikiak ere. Gero eta ekipamendu eta prestakuntza hobeak izaten dituzte eta kalitate handiko ardoak egiten dituzte.

Edozelan ere, lore, belar edo fruta usaineko ardo gazte honetaz gozatzen jarraitu behar dugu; azkenean uzten digu gustuak beste kopa bat eskatzen du, tartean apustua egon nahiz ez egon.



Antzina erramu adarrak jartzen ziren bidegurutzeetan, mostoaren hartxidura zein baserritan eginda zeukaten adierazteko eta lagun-koadrilak bertan elkartera gonbidatzeko. Giro onean, kantuka, apustuan batzuetan, dastatzen zuten txakolina, bakailao eta sardinekin lagunduta. Uza berria izaten zuten hizpide: honen edo beste haren txakolinaren berezitasunak...

Etxeko sukaldaritza

Aberri Egunerako menua

- Berakatz sopea (ikusi abenduko alea)
 - Artxoa labean
- Osagaiak**
(4 lagunentzat):
- 3 kg. artxo
 - Berakatz buru bat
 - 200 g. txarri-koipea
 - Oliba olioia (zurrus-tada bat)
 - Limoi baten zukua
 - Gatza
 - 200 cl. ardao zuria



**Maite Lekerika,
sukaldaria**

Artxoa berakatzaz eta orez igurtziko dogu. Ganetik berakatzak botako deusaguz, eta albal-paperez ondo estaliko dogu. Labean 200 gradutan sartuko dogu, eta ordubete inguru pasatu ostean, bueltea emon eta ardo botako dogu. Ordu laurden bat gehiago izango dogu albal-paperagaz. Ondoren, albala kendu eta gorritzen itxiko dogu 125 gradutan. Saltsea ganetik botako dogu, eta, beha-

rrezkoa bada, ur apur bat be bai. Artxoa entsalada batez lagunduko dogu.

- Ogizko tostadak (ikusi iazko otsaileko alea).

Prestatzeko era:

Koipea, olioia, limoia eta gatza nahastu, eta irabiatu egingo doguz, ore antzeko bat lortu arte. Berakatz burua birrinduko dogu, azala eta guzti.



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Apirilaren 2a, Haur liburuaren nazioarteko Eguna

"Ez dut inoiz ahaztuko nola ikasi nuen irakurtzen. Txikia nintzenean, hitzak korrika ibiltzen ziren alde batetik bestera nire begien parean, kakalardo iheskorrek bailiran. Baina ni haiek baino azkarrago nintzen. Haiek ezagutzen ikasi nuen beraien korrikaldi arinari erreparatu gabe. Azken-azkenean, liburuak ireki ahal izan nituen eta idatzirik zegoena ulertu. Ni bakarrik ipuinak eta txisteak eta poemak irakurtzeko gai izan nintzen". Margaret Mahy

NAGUSIAK

Sua falta zaigu

K. Agirre

Iturrino handia

H. Etxeberria

Maitale koitaduen kronikak

V. Paretolini

Aulki bat elurretan

U. Alberdi

MUSIKA

Kontzertuak:

Kerobia, apirilak 3, Kafe

Antzokian-Bilbo

Betagarri, apirilak 4,

Hanburgon

Ruper Ordorika, apirilak 6,

Santanderren

Anestesia +Naiz Roxa + Izaera,

apirilak 7, Tunk aretoan-Irun

Neubat, Apirilak 14, Ondarrun

DENBORA PASA

LETRAZOPA

B	A	U	Ñ	H	T	S	O	F	G	E	O	R
Ñ	I	N	R	E	A	P	F	O	S	A	I	P
B	A	O	B	D	B	G	I	E	R	S	Y	M
N	D	P	R	H	Z	K	F	R	N	X	H	K
R	O	B	U	R	J	R	A	E	Ñ	J	G	I
A	T	E	N	J	A	K	F	Z	G	R	A	J
Ñ	A	Y	O	P	A	K	P	I	B	E	E	F
S	Y	E	U	M	T	L	L	A	L	K	R	L
Z	T	Z	I	E	X	Ñ	O	R	E	M	E	N
D	X	B	A	K	M	M	E	P	Y	H	K	J
U	T	X	H	U	Y	Y	X	G	L	B	A	K
S	O	L	L	A	N	D	E	A	Z	D	M	L

P	M	A	D	P	A	E	R	A	K	S	A	K
A	U	G	R	B	G	P	T	S	L	H	U	B
X	P	O	A	R	B	A	D	B	R	K	D	S
E	F	T	D	S	I	T	O	I	F	L	M	M
O	Ñ	S	Ñ	F	R	E	S	K	O	A	T	Z
Y	D	B	R	U	H	X	N	E	I	N	I	J
A	E	S	G	L	I	E	L	J	G	P	A	L
O	Z	O	N	A	M	K	U	K	X	A	N	J
Ñ	Y	U	S	T	U	R	I	E	H	R	Y	Ñ
A	N	P	L	R	F	H	Y	X	J	R	T	E
L	T	G	N	Z	K	Z	H	O	U	A	F	O
Ñ	R	M	Ñ	F	I	Y	J	K	G	T	U	X

Gaur egun ez da erraza, baina garai baten gure baserrietan errez aurkitzen ziren. Goiko letrazopan aurki itzazu **7 baserrietako animalien izenak***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 57. zenbakiaren erantzuna. negua-gaz zerikusirik daben 7 berba



Antzerki eta filmak

Sondika

–*Txitxarra eta inurria* haurrentzako antzerkia, Markelñe taldearen eskutik. Apirilaren 20an, 18:30ean, Kultur Etxean.

–Animabasauri Nazioarteko Animazio Zinemaldia. Apirilaren 27an, 19:00etan, Kultur Etxean (doan).

Lezama

–*Zuk zuk jaunaren alfabetoa* umeentzako antzezlan, Irrintzi taldearen eskutik. Apirilaren 27an, 17:30ean, Kultur Aretoan.

Erakusketak

Derio

Euskal kirolariak. Apirilaren 14tik 26ra, kiroldegian. Untza mendi taldeak antolatuta.

Ikastaroak eta tailerrak

Sondika

–Komunikazio eta autoestimua ikastaroan izena emateko epea: apirilaren 2tik 13ra. Ikastaroa maiatzaren 7tik ekainaren 4ra izango da astelehenetan.

–Kaleko patinatzea ikastaroan izena emateko epea: apirilaren 16tik 20ra. Ikastaroa apirilaren 28an eta maiatzaren 12an eta 26an izango da.

Zamudio

–Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna: *Andersen* markatzen saioa. Apirilaren 2an, 11:00etan, liburutegian.

–Idazkera tailerra 6-8 urteko gazteentzat. Apirilaren 21ean, 11:00etan, liburutegian.

–Liburu Eguna: *Liburua eta liburutegiak*. 40.000 urteetako historia bideo emanaldia. Apirilaren 23an, liburutegian.

Lezama

–Umeentzako ekitaldiak ludotekan: tailerrak, eskulanak, irteerak... Apirilaren 10-

etik 13ra.

–7 urtetik 12 urtera bitarteko umei zuzendutako idazketa tailerra. Apirilaren 26an, 18:00etan. Izena eman behar da liburutegian.

Larrabetzu

–Bidaiazteko tailerrean izena emateko epea: apirilaren 16tik 20ra. Tailerra maiatzaren 3an, 10ean, 17an eta 24an izango da.

Irteerak

Txorierri

–Herri Urratsera (Senpere) eta Ibilaldira (Balmaseda) irteeretan izena emateko epea. Galdetu zure udaletxean.

Sondika

–Done Jakue bidea: Markinatik Bolibarre-ara. Apirilaren 22an, ikastetxeko aparkalekuan. Izena emateko epea: apirilaren 16tik 19ra.

Zamudio

–*Aventura en el teatro* haurrentzako antzezlanera. Apirilaren 27an, 19:00etan, Arriaga antzokian.

–Iparraldera. Apirilaren 21etik 22ra, Arroeta mendi taldeak eta Lagatzu euskara elkarteak antolatuta.

–Soriako mendietara. Apirilaren 27tik maiatzaren 1era, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Lezama

–Redeseko Parke Naturalera (Asturias). Apirilaren 5etik 9ra, Gailur mendi taldeak antolatuta.

–Europako gailurretara. Apirilaren 28tik maiatzaren 1era. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Hitzaldiak

Lezama

–Guraso euskaldunei zuzendutako hitzaldia. Apirilaren 26an, 18:00etan, Kultur Aretoan.

Larrabetzu

–*Munduari bira hamaika bideetatik* diaporama. Maiatzaren 31an, 18:00etan, Anguleri Kultur Aretoan.

Bestelakoak

Txorierri

–Nagusien Jaian izena emateko epea (galdetu zure herriko elkarteak).

Sondika

–XIII. Argazki Rallya. Apirilaren 22an, 11:30ean, Artebe kiroldegian. Udalak, Euskal Kolor-rek eta Sondika-Goirik argazkigintza taldeak antolatuta.

Derio

–Argazki Rallya. Apirilaren 21ean, 10:00etan, kiroldegian. Derioko Argazki Taldeak antolatuta.

–Merkatu Txikia. Apirilaren 21ean, 11:00etatik 14:00etara, Sollube kalean. Txoriberri elkarteak antolatuta.

–Udalekuan izena emateko epea: apirilaren 16tik 20ra.

Larrabetzu

–Oporrak bakean 2007 egitasmoan izena emateko epea: apirilaren 16tik 20ra. Liburua eta Irakurketaren hilabetea.



GARAIOLTZA, S.A.

PRIMORDIAK ERATUNTZAK

LEZAMA

ETXEREGITZAK, MERKATUNTZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERATUNTZAK, LEHIAK HANIHAK,





ORDAINTZEN DULAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19



Urduloren 2007, 128 (bidea)
Lezama (Bizkaia)

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gizartearen, gure pertsonen inplikazioaren eta hoberentzako jantziaren bitartea, berrikuntza eta inbentarioa berritu nahi dugun bitartean, Rikaintzearen eraginez biltzen.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

zure bizilzo diseinalu

erosi
logela,
geuk
arituko dizugu
koltxoia*

ORAIN
etengabeko ordutegian:

[illegible]

100% feedwater efficiency

810E

885f

Tourism statistics, 23
Tel. 94 253 12 90

Marengo, 109-Polo 15
Tel. 844 404 47 47

Laboga, 1
Tel. 94 457 19 90